

IRAKURKETA-GIDA

Kutxa bete dinosaurio

Ana Rossetti

begiko

Kutxa bete dinosauro

Ana Rossetti

LIBURUAREN AURKEZPENA



Egilea

Ana Rossetti San Fernandon (Cádiz) jaio zen, 1950ean. Idazten aritu da «jaio» zenetik. Idazle-ibilbide horretan hainbat genero konbinatu ditu: antzerkia, poesia eta narrazioa. Bere obra poetikoagatik da oso ezaguna, baina bestelako lanak ere asko idatzi ditu: antzezlanak, operako libreto bat (Oscar Wilderen inguruan, Madridgo Olimpia Aretoan 1993. urtean estreinatua, Manuel Balboaren musikarekin), nobela bat, haurrentzako hainbat liburu eta kontakizunak. Andaluziako domina jaso du bere obra osoagatik.

Liburua

Etxeko trastelekuan, Nikok eta haren lagunek egurrezko kutxa zahar bat aurkitu dute, itxura batean ezertarako balio ez duten gauzez betea, baina itxura baino ez da, traste horiek erabiliko baitituzte lagunek abentura zoragarriak bizitzeko.

Kutxa zaharra, historiaurreko kobazulo bihurtuko da. Behin barruan, Niko, ketchupa eta ziapea hartuta, animaliak margotzen hasi da haitzuloko hormetan. Maiak iradoki du larruak jantzi behar dituztela, *Harriketarren* antzera, eta Gorkak haitzuloa eta ingurunea arakatzeari ekin dio. Aspaldi desagertu denez, lagunak haren bila hasi dira, baina Gorka ez da agertzen, dinosauro txiki-txiki bat aurkitu duelako eta lagunak egin direlako. Abentura ederra bizi ondoren, Nikok eta lagunek historiaurrea uztea erabakiko dute eta Denboraren Igogailuan gaur egungo garaira itzultzea.

Zergatik irakurri liburu hau?

Bizitzan irudimena behar dugu: trastez betetako kutxa zahar bat historiaurreko haitzulo bihurtuko da fantasia gainezka duten haur batzuentzat. Hor hasiko da haien abentura, mamut eta dinosauroen artean, labar-margoak imitatuz eta *Harriketarrak* oroitzuz.

Kontakizun hau oso atsegina da, eta protagonistak gure irakurle txikien adin berekoak dira: irudimena bor-bor duten lagun-talde bat. Kutxa zahar bat erabiltzen hasi eta, jolas sinboliko batean murgilduta, iraganera bidaiatuko dute, trogloditen portaera imitatuko dute, modu antolatuan adieraziko dituzte beren emozioak eta tarte oso dibertigarria igaroko dute. Nork ez ditu ikusi ikasleak horrela jolasten?

Liburuak gaitasunen garapenari egiten dion ekarpena

ARLOKO GAITASUNAK

Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako gaitasuna

Literatura gozamen-iturritzat hartzea, euskaraz eta haren hizkuntza sistemaz gozatzeko.

Ideiak eta sentipenak komunikatzeko gaitasuna garatzea.

Literatura-testua mundua ulertzeko leihoa izatea.

Hizkuntza-aniztasuna errespetatzea eta haren aberasgarritasunaz jabetzea.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna

Historiaurreko labar-pinturen garrantziaz ohartzea.

Gizarteak denboran bilakaera jakin bat izan duela ikastea;

Historiaurretik hasita gaur egunera arte.

Historiaurreko ezaugarri nagusiak (labar-pinturak, kobazuloa, sua...) ezagutzea.

Zientziarako gaitasuna

Elikadura osasuntsua eta orekatuaren berri izatea; esaterako, elikagai koipetsuak gehiegi kontsumitzeak osasunean eragin dezakeen kalteen berri izatea.

ZE HAR-GAITASUNAK

Elkarbizitzarako gaitasuna

Pentsaera eta izaera ezberdina duten pertsonak ulertu eta aintzat hartzea. Hala nola, pertsonen zaletasun ezberdinak errespetatzea.

Indarkeriazko jokabideak (isekak, mehatxuak, *bullyinga*...) guztiz baztertzea.

Ikasten ikasteko gaitasuna

Erabakiak hartzean, ekintzen ondorioak bere gain hartzeko ardura garatzea.

Indarkeriari eta haren ondorioei buruz gogoeta egitea.

BALIOETAN HEZTEA

Elkartasuna eta pertsonen arteko begirunea oso ageriko balioak dira abenturazko liburu honetan. Dudarik gabe, istorioak egokiera ezin hobe ematen digu adiskidetasunaren garrantziaz ohartzeko. Horrez gain, istorioak bide emango digu gure ikasleekin ohitura osasungarriei buruz gogoeta egiteko: dieta, elikadura osasungarria...

JARDUEREN PROPOSAMENA

Irakurri eta ulertu

Titulua asmatzeko hieroglifo · 1. jarduera

Dinosauroen irudiak liluratu egiten ditu umeak, hitzez emandako azalpen ororen gaineratik. Kasu honetan, dinosauroak bigarren mailako pertsonaiak dira istorio erakargarri honetan, haurrentzat beti baitira erakargarriak beren interesak, emozioak, beldurrak... islatzen dituzten kontakizunak.

Istoria dibertigarri hau irakurtzen hasi aurretik, titulua zein den asmatzeko jolas erraz bat proposatuko diegu gure ikasleei: dedukzio-jolas bat, oinarri-oinarrizko hieroglifo bat.

Bosten argazkiak · 2. jarduera

Bost lagun dira kontakizun honen protagonistak: Maia, Lier, Telmo, Gorka eta Niko *Briko*. Bakoitzak ezaugarri berezi bat du nor den nor zehazten duena: Maia lagun-taldeko neska da; Telmo aise ezagutzen da bere ile-gandorragatik; Lierrek bisera marradun bat eramaten du beti; Nikok praka petodunak eta Gorkak ile kizkur bakar bat bere buru soilduan.

Aurkeztutako hiru «familia-argazkiei» arretaz begiratzeko eskatuko diegu hurrei; bitan, zenbait pertsonaia falta dira; ikasleek zein falta den adierazi beharko dute, marraztu egin beharko dituzte eta haien izenak idatzi.

Hitz gurutzatuak Nikorekin, haren lagunekin eta *Compsognathusarekin* · 3. jarduera

Ikasleei eskatuko diegu hitz gurutzatuak osatzeko, liburuko pertsonaien izenak gogoratuz.

Non dago? · 4. jarduera

Kutxa zaharra leku magiko bihurtu da. Barnealdea historiaurreko haitzulo bat bilakatu da bat-batean, harkaitzez, tunelez, amildegiz... betea. Kobazulo horretan gertatzen da istorio hau.

Ikasleei eskatuko diegu pertsonaiak zer lekutan dauden bereizteko, eta dagokion esaldiarekin adierazteko.

Lau une ordenatzea · 5. jarduera

Kontakizunaren 43. eta 48. orrialdeen artean, Gorkak amildegi bat du parez pare; eta gurutzatu ondoren, haurrak ezusteko atsegin batekin egingo du topo. Ikasleei proposatuko diegu denbora-sekuentziaren lau uneak ordenatzeko, eta bineta bakoitzari dagokion bunbuiloa idazteko.

Ozen: *Irakurketa piktogramekin* · 6. jarduera

Ikasleei galdetuko diegu ea oroitzen dituzten haurrek ipuinaren hasieran jandako hanburgesen osagaiak. Ondoren, beste irakurraldi bat egiteko proposatuko diegu, testua eta irudiak uztartuz, osagaiak jakiteko. Behin hori eginda, hutsuneak dagokion hitzarekin osatzeko eskatuko diegu. Azkenik, esaldiak ikasgelan ozen irakurtzera animatuko ditugu.

Letra-anabasa · 7. jarduera

«Jurasikoa», «dinosauro», «mamut», «trilobite» eta «diplodokus» hitzak ageri dira, besteak beste, kontakizunean. Termino horien esanahi zehatza azalduko diegu hurrei, eta Jurasikoaren ezaugarri batzuk kontatuko dizkiegu. Jurasikoa historiaurrearen aurreko aroa da, eta milioika urte iraun zuen; aro horretan, narrastiak beren garapen gorenera iritsi ziren eta amaieran lehen ugaztunak, lehen hegaztiak... agertu ziren.

Jolas erraz bat proposatuko diegu: letrak ordenatzea eta, modu horretara, ezkutu-tuan dagoen hitza aurkitzea.

Ekialdera eta mendebaldera · 8. jarduera

Ipuinaren 30. orrialdean, Gorka, lagun txantxak jasan ezinik, banandu egiten da taldetik, eta lagunak haren bila hasten dira. Horretarako, bi taldetan banatzen dira: bat ekialdera doa eta bestea mendebaldera. Ikasleei eskatuko diegu, fitxan, irudiko bi kartelak erreferentziazat hartuta, bereiz ditzatela noranzko batean eta bestean doazen dinosauroak eta margotu ditzatela. Hala, orientatzen ikasiko dute.

Jarduera aberasteko, ikasgelan bertan edo jolastokian iparrorratza erabil dezakegu. Bi taldetan banatuko dugu gela: ekialdeko taldea eta mendebaldekoa. Gelaren erdian kokatuko dugu iparrorratza. Talde bakoitzak bi ordezkari izendatuko ditu iparrorratza irakurtzeko eta zer norabide hartu behar duten adosteko. Hasteko agindua ematean, ordezkariak zer noranzko dagokien adieraziko dute eta talde osoak izkina horretara joko du azkar-azkar. Talde bateko kide guztiek dagokien jomugara zuzen iristea lortzen dutenean, talde horrek irabaziko du jolasa.

Baloratu

Jostailuen ospitalea

Istorio honetako haurrek kutxa zahar bat aurkitu dute etxeko trastelekuan, eta horrekin abentura polit bat asmatu dute.

Gaur egun ohikoa da jostailu gehiegi erostea edo oparitzea eta berehala bazterrera uztea. Horri buruz hitz egingo dugu ikasleekin eta proposamen bat egingo diegu: jostailu horiek birziklatzea, konpontzea, garbitzea eta neba-arreba txikiekin, lehengusuekin, bizilagunekin... berrerabiltzea.

Osasuntsu jatea

Itxura batean, Niko eta lagunak kezkatuta daude kolesterola sortzen duten elikagaiak jatearekin.

Kolesterolari buruz hitz egingo dugu haurrekin, eta askari gozoa eta osasuntsua egitea proposatuko diegu. Etxean galdetuta askari osasuntsu eta gozoen errezetak idazteko eskatuko diegu, gelan irakurtzeko eta guztion artean prestatzeko.

Eztabaida: *Gorka minduta dago*

Ipuinaren 27. eta 28. orrialdeetan, Gorka haserretu egiten da lagunekin, adarra jotzen diotelako: Gorkak ulertu ezin duen hizkuntza batean hitz egiten dute, eta horrek gaizki sentiarazten du.

Txantxei buruz hitz egingo dugu ikasleekin: nola batzuetan gaizki hartzen ditugun, eta, beste batzuetan, txantxa astun samarrak egiten ditugun, eta mindu egiten ditugun lagunak. Galdetuko diegu ea noizbait horrela sentitu diren eta zer egingo luketen adiskideei maitasuna erakusteko.

Eztabaida ixteko, guztion artean bizikidetzarako kode bat prestatzea proposa diezaiekegu.

Harriketarrak imitatzea

Ipuin honetako pertsonaiek larruak janzten dituzte mozorrotzeko eta Harriketarren antza dutela aipatzen dute haien artean; telesail ezaguneko pertsonaien antza, alegia. Marrazki bizidun horien kapitulu bat ikusteko proposatuko diegu haurrei, eta pertsonaiak eta garaiko objektu esanguratsuenak marrazteko.

Ikasgelan, horma-irudi bat egingo dugu historiaurreko objektuekin, eta gaur egun goekin alderatuko ditugu.

Sortu

Idazlearen lanbidea: *Denboraren Igogailua*

Istorioaren 60. eta 61. orrialdeetan, haurrak Denboraren Igogailura igo-tzen dira etxera itzultzeko. Baina, igogailua nahastuko balitz, eta haurrak etorkizuneko beste garai batera eramango balitu, 2900. urtera, adibidez?

Ikasleei proposa diezaiekegu etorkizunera bidaia bat egitea eta imajina-tzea nolakoa izango den haien bizitza, nola aldatuko diren gauzak, zertaz elikatuko diren... Horren harira bururatzen zaien guztia idazteko eska-tuko diegu, testuari nolabaiteko forma emanez. Azkenik, ikasgelan par-tekatuko ditugu proposamen guztiak.

Etxean egindako jostailuak

Erabili eta botatzeko elementuek jolaserako zer aukera eman dezaketen deskubri-tzera animatuko ditugu haurrak. Objektu horiekin hainbat jostailu egin ditzakegu, baita mahai-jolasak ere, eta ikasgelan erabil ditzakegu.

Adibidez:

- Plastikozko dozena erdi botilatxorekin bolo batzuk egingo ditugu.
- Erditik ebakitako kortxoekin domino bat sortuko dugu.
- Kartoizko kaxa txikiekin jostailuzko autoak atonduko ditugu.

Fosilak egingo ditugu

Fosilei buruz hitz egingo dugu haurrekin. Azalduko diegu izaki bizidunen aztarnak direla, solidifikatuak eta harri bihurtuak. Milioika urte behar dira fosilak sortzeko, eta horretarako baldintza berezi batzuk behar dira: animaliak edo landareak ure-tan edo uretatik gertu hil behar du, eta lokatzak edo hareak berehala estali behar du hildako izaki hori.

Gaur egun fosilei esker jakin dezakegu nolakoak izan ziren antzinako animaliak eta landareak. Museoetan, dinosauroen eta historiaurreko beste izaki batzuen fosilak ikus ditzakegu.

Ikasleei eskatuko diegu honako hauek ekartzeko: plastilina, espaloietan erorita aurkitutako hostoak eta dinosauroen jostailuak. Elementu horiek erabiliz, dino-sauroen eta hostoen aztarnen fosilak egitera animatuko ditugu.

Iraganaren ikertzaileak

Dinosauroen gaia bereziki erakargarria egiten zaie irakurle gaztetxoei. Hori aprobetxatuz, ikerketa-lanetan lehen urratsak ematen irakatsiko diegu, eskola-ibilbide osoan oso erabilgarria izango baitute jardun hori.

Ikertzeko zereginarekin ez daitezten hainbeste ikaratu, lauzpabost laguneko talde-tan antola dezakegu gela, eta, hasteko eta behin, dinosauroei buruz dakitenaren inguruan hitz egiteko proposatuko diegu.

Ondoren, eta betiere gidatuta, liburutegira eraman ditzakegu, liburuetan informazioa bila dezaten, baita Interneten ere, eta zekitena zuzena den ala ez egiazta dezaten.

Eginbehar horretan orientatzeko, galdera hauek proposatuko dizkiegu, ikerketa antolatze aldera:

- Zer garaitan bizi izan ziren?
- Noiz eta zergatik desagertu ziren?
- Espezie bakarra al zen, edo dinosauro mota asko zeuden?
- Zer neurritakoak ziren?
- Zertaz elikatzen ziren?
- Nola ugaltzen ziren?

Artista naiz

Liburuaren 26. orrialdean Niko *Briko* kobazuloaren barnean animaliak margotzen ageri da. Ikasleei eskatuko diegu gogoratzeko historiaurreko zer animalia margotu zituzten eta, ondoren, animalia horiek irudikatuko dituen collage bat atonduko dugu. Marrazki guztiekin horma-irudi bat ere egin dezakegu.

IZENA: MAILA:

KUTXA BETE DINOSAURO

Ana Rossetti

1. jarduera · Titulua asmatzeko hieroglifoak

Ipuin honen titulua oso erraza da deszifratzeko.

Irakurri hieroglifo hau, zein den asmatzeko.



2. jarduera · Bosten argazkiak

A argazkian Niko Brikoren lagun taldeko kide guztiak daude. B eta C argazkietan, ordea, ez daude denak.

Nor falta da? Marrastu eta idatzi haien izenak.

(A)	GORKA MAIA TELMO NIKO LIER
(B)	Hauek falta dira:
(C)	Hauek falta dira:


IZENA: MAILA:

KUTXA BETE DINOSAURO

Ana Rossetti

3. jarduera · Hitz gurutzatuak Nikorekin, haren lagunekin eta Compsognathusarekin

Oroitzen al dituzu pertsonaien izenak? Zenbakiak kontuan hartuta, idatzi izenak hitz gurutzatuetan.




IZENA: MAILA:

KUTXA BETE DINOSAURO

Ana Rossetti

4. jarduera · Non dago?

Non dago Gorka irudi bakoitzean? Begiratu arretaz, aukeratu eta lotu lehen bidez.




Etxeko
ganbaran.

Amildegia
ertzean.

Haitzuloaren
aurrian.

Tunel
batean.



Harkaitzen
arte.

Zuhaitz baten
ondan.

Oihanean.

Ganbaran.

IZENA: MAILA:

KUTXA BETE DINOSAURO

Ana Rossetti

5. jarduera · Lau une ordenatzea

Erreparatu binetei, ordenatu eta jarri zenbakia ordena zuzenaren arabera. Idatzi zer dion Gorkak bakoitzean.



IZENA: MAILA:

KUTXA BETE DINOSAURO

Ana Rossetti

6. jarduera · Irakurketa piktogramekin

Osatu lerro hauek dagokion hitzarekin, eta irakurri testua.



.....ren hamburgesak osagai

hauek ditu:



.....,



.....

eta



.....



.....renak



.....

irabiatua dauka, eta hirugihar-xerrak.



.....renak, aza,



.....

birrindua eta maionesa.



.....renak, luzokerra,



.....

eta ospinetako luzokertxo.



Eta

.....renak,



.....

eta



..... lodia.

IZENA: MAILA:

KUTXA BETE DINOSAURO

Ana Rossetti

7. jarduera · Letra-anabasa

Historiaurrearekin loturiko hitz asko ikasi dituzu.
Orain, ordenatu haietako batzuen letrak eta idatzi
ondoan.

D I P L O D O K S U


O K I S A R U J

M A T M U

B I T E T R I L O

8. jarduera · Ekialdera eta mendebaldera

Beginatu arretaz EKIALDERA eta MENDEBALDERA karteiei.
Margotu dinosauroak, zer noranzkotan doazen kontuan
hartuta.



IZENA: MAILA:

KUTXA BETE DINOSAURO

Ana Rossetti

Irakurmen-testa

Pentsatu ondo galderetan, eta markatu erantzun zuzenak.

1. Zenbat lagun dira abentura honetan partaide?

- ☐ a Lau.
- ☐ b Bost.
- ☐ c Zortzi.

2. Zer zabaltzen dute haurrek?

- ☐ a Armairu bat.
- ☐ b Kutxa bat.
- ☐ c Soto bat.

3. Zer garaitara bidaiatu dute lagun-taldekoek?

- ☐ a Historiaurrera.
- ☐ b Antzinarora.
- ☐ c Haitzulaketako arora.

4. Zer hizkuntza hitz egiten dute haurrek?

- ☐ a Asmatutako bat: euskalinglisha.
- ☐ b Asmatutako bat: dinoera.
- ☐ c Asmatutako bat: haitzulaketako hizkuntza.

Erantzunak

KUTXA BETE DINOSAURO

Ana Rossetti


Titulua asmatzeko hieroglifoa · 1. jarduera

Kutxa bete dinosauro

Bosten argazkiak · 2. jarduera

b) Lier eta Telmo falta dira. c) Maia, Niko eta Gorka falta dira.

Hitz gurutzatuak Nikorekin, haren lagunekin eta Compsognathusarekin · 3. jarduera




Non dago? · 4. jarduera

a) Tunel batean. b) Amildegiairen ertzean. c) Harkaitzen artean. d) Oihanean.

Lau une ordenatzea · 5. jarduera

Hauxe da ordena:



Lau bunbuiloetan, erantzun librea.

Irakurketa piktogramekin · 6. jarduera


Lierren hanburgesak osagai hauek ditu: **letxuga**, **tomatea** eta **tipula**. **Telmorenak**, **gazta** irabiatua dauka, eta hirugihar-xerrak. **Nikorenak**, aza, **azenario** birrindua eta maionesa. **Maiarenak**, luzokerra, **piperra** eta ozpinetako luzokertxo. Eta **Gorkarenak**, txanpiñoia eta **piper lodia**.

Letra-anabasa · 7. jarduera

- Diplodokus
- Jurasiko
- Mamut
- Trilobite

Ekialdera eta mendebaldera · 8. jarduera

Ekialderantz doazenak adierazi, eta besteak kontrako noranzkoan doaz.



Irakurmen-testa

1 b, 2 b, 3 a, 4 c. , 2 b, 3 a, 4 c.